

ZAINITZA PERTSONALETAN ETA ETXEKO GARBIKETAN ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO PROGRAMA

PROIEKTUAREN HELBURUAK:

- Enplegagarritasuna hobetzea, neurrira egindako ibilbide integralen bidez.
- Gaitasun soziolaboralak handitzea.
- Diagnostiko sozio-profesionalak eta lan-munduan sartzeko ibilbide pertsonalizatuak.
- Prestakuntza:
 - **Enplegagarritasunerako estrategiak (8 ordu):**
 - Gaitasun soziolaboralak.
 - Komunikazioa.
 - Erantzukizuna lan-ingurunean.
 - Autonomia eta erantzukizuna.
 - **Oinarrizko trebakuntza 2. Mailako Gaitasun giltzarrietan (40 ordu):**
 - Matematika-gaitasuna.
 - Gaztelaniazko komunikazio-gaitasuna.
 - **Zaintza pertsonalak eta etxeke garbiketa (40 ordu):**
 - *Etxeko garbiketa*
 - Etxeko garbiketa- eta mantentze-teknikak.
 - Etxeko higiene- eta segurtasun-arauak.
 - Desinfekzio-teknikak
 - *Zaintza pertsonalak*
 - Desgaitasuna duen pertsonaren ezaugarriak.
 - Laguntza psikosoziala
 - Laguntzaren eta higiene pertsonalaren oinarrizko ezagutzak.
 - Jaten ematea.
 - Lehendabiziko laguntzak.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- 25 eta 55 urte bitartekoa izatea, eskaera egiten denean.
- Eibarren erroldatuta egotea.
- Langabezian egon eta Lanbiden izena emanda egotea.
- Batxilergora arteko formazioa.
- Gaztelaniaren ahozko nahiz idatzizko ulermen-maila egokia izatea.
- 2. Mailako profesionaltasun-ziurtagiria egin nahi izatea eta sarrera-probak gainditu behar izatea.
- Etxeko zaintzaren eta arretaren alorrean profesionalki jardun nahia izatea.

ESKAERA EGITEKO EPEA:

2023ko abenduaren 1etik 15era arte (biak barne).

TRAMITATZEKO BIDEAK:

- **Presentziala:** [PEGORA \(Herritarren Zerbitzurako Bulegoa\)](#) Untzaga plaza 1. Beheko solairua. **Goian adierazitako baldintzak betetzen dituen pertsonak edo haren ordezkari legalak joan beharko du. Programan parte hartzeko eskaera aurrez aurre beteko dute PEGORAko langileek.** Itxaronaldiak saihesteko, hitzordua eska daiteke PEGORAn. Hitzordua nola eskatu:



Udal webgunearen bitartez: [hitzordua eskatu PEGORAn](#).
Telefonoz: 943 70 84 00 / 010.

- **Elektronikoa:** Udalaren www.eibar.eus webgunearen bidez. Izapidea elektronikoki egiteko, ziurtagiri digital bat eduki behar da (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.)

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- Eskatzailearen NANA edo horren balio bereko beste dokumenturen bat.
- LANBIDEk egindako txostena, langabe gisa inskribatuta egondako aldiei buruzkoa.
- Lan-bizitza eguneratua.
- Curriculum vitae eguneratua.
- Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua, eta ordezkariaren egiaztapena, dokumentu bidez. Egiaztapena zuzenbidean bidezkoa den edozein bide erabiliz egin daiteke (notario-ahalordez, eskritura bidez...). Ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egonez gero, ez da dokumentazioa aurkeztu beharko.

PROGRAMAREN GARAPENA:

1. PARTE-HARTZAILEAK AUKERATZEA
2. BANAKAKO ETA TALDEKO ORIENTAZIOA
 - Diagnostiko espezializatua.
 - Laneratzeko plan pertsonalizatua.
3. FORMAZIOA.
 - Enplegarritasun-estrategiak.
 - 2. Mailako gaitasun giltzarriak (matematikak eta gaztelania)
 - Zaintza pertsonalak eta etxeko garbiketa.
4. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA.